

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angel Amenabar Lasquibar

*Andoain,
Gipuzkoa
(1932-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Andoaingo Sorabillako Intxusaran baserrian jaio zen. Aitak basoa ateratzen egiten zuen lan eta ama, berriz, merkatura joaten zen saltzera. Berak laguntzen zion amari esnea hartzaileen artean banatzen. Baserriko lanengatik eskolara joan gabe gelditzen zen askotan, eta etxerako lanak egitera ere ez zen iristen. Horregatik, 13 urterekin eskola uztea erabaki zuen inori esan gabe. 23 urterekin mekaniko laguntzaile hasi zen paper-fabrikan. Bonba-fabrikan ere ibili zen tornulari, gero Elgoibarren eta Donostian ere ibili zen tailer gehiagotan, eta azkenean bere kontura jarri zen bere lagun batekin batera, bere jaiotetxean prestatu zuten tailer batean.

Zintak

AND-056

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-11-18
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Etxeko idiekin proba irabazi zutenekoa

- **Erref:** AND-056/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Intxusaran baserria nolakoa zen kontatzen du: zortzi behi eta idi-parea zeuzkaten. Idiekin basoak ateratzen ibiltzen zen aita. Aitak behin irabazi egin zuen idi-deman; idiak prest egoten ziren demarako urte guztian zehar. Lehen gaez egin ohi ziren idi-probak.</p>

2. Idi-apustu asko Andoainen

- **Erref:** AND-056/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola

Laburpena:

Lehen idi-apustu asko jokatzzen zen Andoainen, baina bestelako apusturik ez. Andoainen baserri ugaritan egoten ziren idi-pareak: baserri horiek aipatzen ditu.

3. Garotara Adarra ingurura

- **Erref:** AND-056/004
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Idiak behiak baino hobeak izaten ziren lanerako. Uztarrrian ibiltzen ziren behiek esne gutxi ematen zuten. Adarra ondoko herri-sailetara joaten ziren garo bila. Zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du. Garoa ebakitzeko egunak ondo aukeratu behar ziren, eta ahal bezain beste kargatzen zuten gurdia.

4. Eskolako etxeko lanak egiteko denborarik ez etxean zeuden lanengatik

- **Erref:** AND-056/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garoa udazkeneko lana izaten zen, eta hura bukatzean, simaurra zabaltzen zuten. Eskolako lanak egiteko denborarik ez zuen izaten, etxean lana egin behar izaten baitzuen.

5. Eskola uzteko erabakia

- **Erref:** AND-056/006
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Garia egiten zutenean, txoriek txikitu egiten zuten. Txori haiek uxatzeko, tomate potoak harriz betetzen zituzten eta haiekin soinu egiten zuten. Lan hori egiteagatik, eskolako azterketak ezin izan zituen egin. Etxean behar zutenez, azkenean eskola uztea erabaki zuen bere kabuz.

6. Gerra osteko gosearen aurka estraperloa eta baserriko jeneroa

- **Erref:** AND-056/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean, garia egiten zuten etxean, gari-sail handiak lantzen zituzten. Beraiek kontrabandoan ibiltzen ziren etxeko artoa eta garia Zizurkilgo errota ehotzeko. Etxean ez zuten goserik pasa, bai baitzuten jateko nahikoa.

7. Errotatik bueltan "guardia zibilak" bidean

- **Erref:** AND-056/008
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:15:46. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Errotara ezkutuan joaten ziren. Orduko errota batzuk aipatzen ditu. Behin, irinarekin etxera bueltan zetorrela, beldurra pasa zuen guardia zibilak ikusi zituela uste baitzuen.

8. Gosea zenean, arbia eta taloa

- **Erref:** AND-056/009
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gari-irinarekin ogia egiten zuten, eta bestela taloa. Etxean soberan gelditzen zitzaizkien taloak lagunen artean banatzen zituzten. Garai hartan, arbia ere

jaten zuten batzuek. Baserrian gosea ez zen hainbeste antzeman, baina baserriko jeneroaren zati bat entregatu egin behar izaten zuten.

9. Esnea banatzen ibiltzen zen "Gibelaundia"

- **Erref:** AND-056/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Baserrian lan asko egin behar izaten zuten lurak lantzeko. Etxean beti izan dute morroi bat. Esnea kalean saltzen zuten lehen, eta eskolara joaterako banaketa egina edukitzen zuen Angelek; eskolara berandu iristen zenez, baina, "Gibelaundi" izena jarri zion maisuak.

10. Janari- eta sagardo-faltarik ez etxean

- **Erref:** AND-056/011
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gosaltzeko taloa eta esnea jaten zituen Angelek. Eguerdian babarruna eta haragi pixka bat jaten zuten. Fruta eta sagardoa ez zitzaizkien falta izan etxean. Sagardoa botilatan sartzeko modurik ez zutenean, barrikatik edaten zuten. Garo bila joaten zirenean, sagardoa eramaten zuten, baina zaporea aldatu egiten zitzaion.</p>

11. Baserriko tresnak eta haien funtzioa

- **Erref:** AND-056/013
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:24:41. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Garotara joaten zirenean eta belarretan ibiltzen zirenean, tresna berak erabiltzen zituzten. Tresna haien funtzioa azaltzen du. Azaoak eta metak egiten zituzten. Sortak etxean aletzen zituzten. Lortutako lastoarekin zer egiten zuten azaltzen du.</p>

12. Lurra lantzeko tresnak eta idiak

- **Erref:** AND-056/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:29:53. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Lurra lantzeko, goldea eta idiak erabiltzen zituzten. Beste hainbat tresna aipatzen ditu, eta haiek nola erabiltzen ziren: laia, karramarroa...

13. Simaurra gurdian kargatzen eta belarra sortaka eramaten

- **Erref:** AND-056/016
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:34:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Simaurra gurdian kargatzeko, sardea erabiltzen zuten. Belarra sortaka eramaten izan dute. Belar-sortak sokarekin lotzen zituzten eta bizkar gainean eramaten zituzten.

14. Lan-baldintza hobeen bila batetik bestera

- **Erref:** AND-056/020
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:38:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean, paper-fabrika hasi zen lanean 23 urte zituela. Handik Soraluzeko fabrika batera joan zen lanera; 5 urte egon zen han tornulari. Gerora, Elgoibarko tailer batean hasi zen: hango lan-baldintzak gogorak ziren. Azkenean, Donostian lortu zuen lana.

15. Donostiatik Sorabillara etorri arteko ibilbide profesionala

- **Erref:** AND-056/021
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:38:51. **Bukatu:** 00:41:18

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Donostian lanean zebilela, Trintxerpen topatu zuen lana eta han lan-baldintza hobeak zituen. Azkenean, Sorabillan tailerra jarri zuen lagun batekin; gerora, lagunak tailerra utzi zuen. Ordutik, Angelek atera du aurrera tailerra iloba batekin batera.

16. Lana baino garrantzitsuagoa, osasuna

- **Erref:** AND-056/023
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Paper-fabrikan lanean zebilela, konponketak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan egiten ziren. Angeli deitu zioten behin, baina ez zela joango esan zuen; horregatik nagusiarekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

17. La Salleko koruan abesten ibilitakoa

- **Erref:** AND-056/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:50:47. **Bukatu:** 00:51:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

La Salleko koruan abestu zuen Angelek: mutilek bakarrik abesten zuten han, euskaraz.

18. Euskaraz ohituta, gaztelaniara ohitzeko zailtasunak

- **Erref:** AND-056/030
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:53:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetan dena euskaraz egiten zuten. La Sallen hasieran maisu euskalduna izan zuten eta euskaraz egiten zuten; geroago, maisu erdalduna tokatu zitzairen, eta dena gaztelaniaz egin behar izan zuten. Kontxa Arretxerekin ere ikasi zuen, euskaraz. Lagunartean euskaraz egiten zuten, eta eskolan gaztelaniaz egin behar izan zutenean, atzerapen handia izan zen, ez baitzuten ulertzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com